

ARABIA IRUDIKAPEN GARAIDEAK. DISKURTSO KRITIKOAK ETA PENTSAMENDU POLITIKOA

Demokrazia. Zuzenbidezko estatua eta nazioarteko politika mundu arabiarrean, Salima Ghezali

1994an Salima Ghezali idazle aljeriarra, *Los amantes de Sherezade* eta *Las tinieblas de la guerra: Argelia y Kosovo* liburuen egilea, *La Nation* astekariaren buru jarri zen; horrenbestez, mundu arabiarrean aldizkari bat zuzentzen duen lehenbiziko emakumezkoa izan da. "Eta ez dugu ahortzi behar –zehaztu zuen Gema Martín Muñozek- herrialde mendebaldarretan ere oso gutxi direla emakumeek zuzentzen dituzten aldizkariak". *La Nation*, beti-beti jarrera kritiko eta independenteari eutsi eta gobernuak talde islamistei borroka egiteko metodoak salatu zituelarik, debekatu egin zuten agintari aljeriarrek 1996an, ez baitziren bere herrialdean kazetaritza askea onartzeko gai. Gema Martín Muñozek esanaren arabera, Salima Ghezali "pentsalari onradua da, kritiko eta zeharo sinesmen edo uste demokratikoak dituen eta elkarbizitza ahalbidetuko duen islamistekiko elkarrizketa ezartzearen alde dagoena, Aljeriako gobernuak (Mendebaldeak zuzenean emandako laguntzaz) 1992ko estatu kolpearen ostean ezarri nahi izan duen ikuspegi sinplifikatzaile eta instrumentalizatutik ihes eginez".

Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa mintegiaren hirugarren jardunaldian eginiko ekarpenean zehar, Salima Ghezalik gogoratu zuen eskolan "arabiar mundua" esapidea entzuten zuelarik ez zela inoiz 'mundu' horretakoa sentitu. "Izan ere –azaldu zuen-, ezagutzen genuen orotatik kanpo zegoen zerbaiti buruz ari zirela iruditzen zitzaidan, Lurretik beretik ere kanpo balego bezala. Eta nik beti sentitu izan dut mundu errealearen barnean nagoela, munduaren barnean, besterik gabe". Arabiar munduari buruz hitz egitea espazio arrotz, urruneko, exotiko, ilun, mehatxagarri... bati buruz hitz egitea da, hitza (eta, horrenbestez, boterea) duen subjektuari arrotz zaion mundu bati buruz alegia. Ghezaliren ustez, "arabiar mundua" esapidea gehiago da erosotasun intelektualaren emaitza ongi zehazturiko geografi, politika eta kultur errealtate bat aipatzen duen kontzeptu kategoria zorrotz bat baino. Gainera, ikuspegi mendebaldarretik "arabiar mundua" gauza estatiko eta bereizi gabetzat sumatzen da, modernitate-aurre suerte batean ainguratuta dagoen eta bere kasa bilakaerarik zertzeko ezgai den gauzatat.

Baina arabiar munduan oso errealtate sozio-ekonomiko, kultural eta etniko desberdinak daude. Salima Ghezaliren iritziz, arabiarrek irudi mundu komuna dute, zalantzarik gabe, espazio geografiko bat baino gehiago histori eta kultur erreferentzien eta nahi politikoen multzo bat den zerbaiten zati diren sentimendu bat. Eta hori, esate baterako, Al-Andalusen oroitzapenean (horixe izan baitzen zibilizazio arabiar-islamiarraren urrezko aroa) edo Palestina okupatuaren errebindikazioan eta, duela gutxiago, Sadamen ondorengo Iraken liberazioarenean ikusten da. Gainera, konstante historiko politiko komun batzuk badirela esan daiteke, nahiz alderdi honetan bereizketa bat egin beharko litzatekeen Magrebeko herrialdeak eta Ekialde Hurbilekoak alde batean eta Arabiar Penintsulakoak bestean jarriz. Lehen kasuan, nazio estatuen sorrerak bide bortitzak jorratu zituen, askapenerako borroken prozesu odoltsu eta konplexuak, tokian tokiko jendeak europar gobernu kolonialen aurka jarri zituztenak.

Aldi berean, arabiar mundua etengabeko eraldaketan eta bilakaeran den espazio geopolitiko eta kultural bat da. Aljeriako kasuan, 1962ko independentziaz gaur egun arte, izugarritzko aldaketa sozial eta kulturala izan da. Konparazioa, aurrerapen handiak izan dira hezkuntzan (oso eskolaratze tasa altuak lortu dira, 60ko lehen urteetan analfabetoak %90 baino gehiago ziren bitartean) edo osasun publikoan. "Joan den mendeko 60, 70 eta 80ko hamarkadetan –esan zuen Salima Ghezalik-, arabiar herrialdeetako biztanleen bizitza kalitateak nabarmen egin zuen gora, nahiz badirudien gaur egun atzerakada fase batean gaudela". Baina Mendebaldean sarritan uste izaten denaz oso bestela, Ghezalik uste du atzerapen horren sorburua ez dela arrazoi erlijiosoetan bilatu behar ("hau da, ez da Koranetik eratorritako gaitz bat"), baizik eta kolonia aldiaren osteko gobernu arabiarrek, mendebaldeko boterearen laguntza izan dutelarik uneoro, garatu duten proiektu politiko, sozial eta ekonomikoaren beraren mugetan. Proiektu politiko honen arabera, posible zen aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzea, aldi berean inolako demokratizatze prozesu errealik abian jartzeke. "Eta ez dugu ahantzi behar –egin zuen ohar Salima Ghezalik- demokrazia (disidentziaren eta dibergentziaren onarpena eskatzen du) ez dela gizarte arabiarrek lortu nahi duten luxu bat, baizik eta benetako bizitza politikoa egon ahal izateko abiatzeko uneko baldintza bat".

Salima Ghezaliren iritziz, aurre egin behar zaie tesi kulturalista eta esentzialistei, zeren eta planteatzen baitute mundu arabiarren egungo krisialdiaren arrazoa musulmanen izaera fanatiko eta pasiboa dela, modernitate bere kasa iristeko ezgaitasuna. "Planteamendu kulturalista hauek –esan zuen Ghezalik- ahantzi egiten dute kolonialismoak izugarritzko desegituratze sozial eta politikoa eragin duela, eta honen zauriak ezin izango direla behar bezala itxi, denbora luzea igaro arte". Adibidez Aljerian, nazio askapenerako borrokak iraun zituen 100 urteetan, frantziar estatuak ez zien eman indigena aljeriarrei (izan ere, sekula ez zituen "subjektu politikotzat" hartu, eta bakar-bakarrik erlijio musulmanaren kide gisa identifikatzen zituen), eta hauek bakar-bakarrik bortizkeria erabiliz lortu ahal izan zuten bere egoera hobetzea.



Ghezaliren iritziz, mundu arabiarren gaitz guztien sorburuan kolonialismoa jartzeak ere zentzurik ez duela onartu arren, datu historiko hori oso lagungarri izan dakiguke Aljerian 90eko hamarkadan zehar gertatu dena ulertu ahal izateko. "Ukaezina da –ziurtatu zuen Salima Ghezalik- kolonialismoa elementu erabakigarria izan dela (eta izaten jarraitzen duela) herrialde arabiarren bizitza politikoa; izan ere, tirania kolonialistaren aurkako borrokan buru eta aitzindari izandako militarrek, kasu askotan, zapaltzaile berriak dira".

Independentzia lortu ostean, Aljerian, lortu egin zuten nazio askapenean sartutako sektoreen elkarren aurkako barne borrokak bide politikoetara eramatea. Kontuan izan behar da kontsensusa funtsezko elementua dela arabiar bizitza politikoan, honetan herriaren babes handiena inguratzen duten mugimenduak nazio edo erlijio batasuna bezalako kontzeptu indartsuak erabiliz gizarte kohesioa bilatzen dutenak baitira. Aitzitik, demokraziaren nozio liberal mendebaldarraren alde egiten duten taldeak (hauen pentsamendu politikoa norbanakoen askatasunaren ideien inguruan mugitzen da) askoz txikiagoak dira, eta hirietako elite intelektual eta ekonomikoei lotuta egoten dira.

80ko urteetan zehar, Aljerian haustura sakona gertatu zen boterearen (honek bere ekintza guztien justifikaziotzat nazio batasunaren ideia baliatzen zuen) eta sakoneko eta premiazko eraldaketa politikoak exijitzen zituen gizarte zibilaren artean. Bere hegemoniari eusteko, gobernu aljeriarrak herrialdeko produkzio ekonomiko, sozial eta kulturalaren espazio guztiak hartzen zituen, gero eta nahigabe handiagoa eraginez; honen ondorioz, biztanleria gero eta hurbilago zegoen sistema oso-osorik zalantzan jartzen zuten mugimendu politikoetatik. Elikagaien eta behar-beharrezko beste zenbait artikuluren eskasia handia izan zen uda baten ondoren, 1988ko urrian matxinada bat gertatu zen ("ogien matxinada" esan zioten), oso jende gaztea zelarik protagonista; segurtasun indarrek oso modu bortitzez egin zioten aurre. Ez zen horrelako zerbait gertatzen zen lehen aldia, bai ordea hain modu ikusgarri eta neurrigabean gertatu zen lehena. Besteak beste, inolako armarik ez zeukaten manifestarien artean hamarka kontatu zituzten hildakoak. "Kolonialaldian bezala -azpimarratu zuen Salima Ghezalik-, bortizkeriak haustura gaindiezin bat eragin zuen, atzera, boterearen eta gizartearen artean"



Estatuaren eta gizartearen arteko haustura horri aurre egiteko, 1989 eta 1991 bitartean gobernu aljeriarraren sektore batzuk izaera demokratikoko erreforma ekonomiko, politiko eta juridiko batzuk sartzen ahalegindu ziren: alderdi aniztasunetik kazetaritzaren aniztasun eta independentzia bermatuko zuten legeen onarpeneraino iritsiz... "Bi urte horretan zehar -ekarri zuen gogora Salima Ghezalik-, Aljeriaren historia berriko eperik bizien eta itxaropentsuenetako bat bizi izan zen, aniztasun sozial eta politikoko esperientzia bat (horrelakorik ezagutzeke zen arabiar munduan), Mendebaldearen partaidetzarik gabe lortua gainera". Are gehiago, eztabaida publikoa ere bultzatu zen -honetako partaideak islamistak, berebereak, nazionalistak eta ezkerreko gizarte taldeak izan ziren, besteak beste-, herrialdea demokratizatzekeko proiektu kolektibo bat aurrera ateratzeko modurik egokiena erabakitzeko. Alabaina, 1992an, gobernuko eta ejertzitoko sektorerik kontserbadoreenak, matxinada islamistei amaiera eman behar zitzaizela aitxakia harturik ("hauetan alderdi erlijiosoa beti-beti nahasten zen errebindikazio sozial eta politikoen", azaldu zuen Salima Ghezalik), erabat eten zuten politika irekitasuneko prozesu hau.

1991ko abenduko hauteskundeetan, Salbazioko Fronte Islamiarrak (FIS) –honen buruzagi nagusiak atxilotuta zituzten sei hilabete lehenagotik- gehiengo absolutua eskuratu zuen, Askapen Nazionaleko Fronte (FLN) ofizialistak bildutako boto kopuruaren bikoitzaz. Baina hauteskunde prozesua baliogabetu, eta Mohamed Boudiaf (FLNren aurkari izandakoa) presidente zuen bitarteko gobernu bat izendatu zuten, ejertzitoaren kontrolpean erabat. 1992ko otsailaren 9an “emergentzia egoera” aldarrikatu zuten, eta urte horrextako martxoan FIS legez kanpo utzi zuten.

80ko urteen amaieraz geroztik, Aljeriako segurtasun zerbitzuek oso ortodoxoak ez ziren baliabideak erabiltzen zituzten mugimendu islamistaren zabalkundeari brida jartzeko, susmagarri ugari hilez eta atxiloketa arbitrarioetara eta torturara modu sistematikoan joz. Eta artean ez zen islamistak boterera iritsiko ote ziren beldurrik (eta, beraz, ez zegoen Estatuak mehatxurik sentitzeko inolako arrazoi errealik). 1992ko urtarrileko autokolpearen ondoren, egoerak okerrera egin zuen, eta gobernuak kontrol zorrotza ezarri zuen hedabideen gainean; bortizkeria islamistaz beste ezertaz ez informatzea lortu zuen. Bortizkeria hura, azalpen ofizialaren arabera (mendebaldeko prentsak jaso eta zabal hedatua baitzen), arrazoi teologikoetan oinarritzen zen (Koranaren interpretazio eldarniozko moduko batean nonbait), ez ordea arrazoi politikoetan.

Militarrek islamismo erradikalaren mamua erabili zuten, halaber, gobernuko sektorerik erreformatzaile eta irekienak paretik kentzeko. 1992 eta 1998 bitartean, militarrek izugarrizko tentsio eta zapalkuntza makina sortu zuten, eta Aljeria, horrenbestez, segurtasunik gabeko herrialde hondatu bihurtu zen, hildakoak 200.000 inguru, desagertu eta atxilotuak milaka, herri osoak txikituta, gobernuaren ekintzei inolako hurbiltze kritikoren bidez heltzea galarazten zuen zentsura sistema, eta herrialdeko hainbat tokitan kontzentrazio-eremu ezkutukoak ere bazirela. “Bortizkeria hori guztia –egin zuen auhen Salima Ghezalik-, zapalkuntza basati hori guztia, zentzugabeko ikaragarrikeria horiek guztiak milioika pertsonak pairatu dituzte urtetan zehar, mendebaldeko herrialdeen isiltasunaz (eta, zeharka, konplizitateaz), beti-beti botere aljeriarraren aliatu politiko eta ekonomiko fidelak izan baitira”. Izan ere, Salima Ghezaliren ustez frantziar estatua da Aljeriako tragediaren erantzuleetan behinena, azken urteotan zehar inolako arazorik gabe egin baitu gobernuak mugimendu islamisten kontra burutu duen zapalkuntza lanaren alde.

Ghezaliren iritziz, hamarnaka mila pertsona hiltzeaz gain, Aljerian “politizidio” moduko ahalegin bat ere izan da. Hau da, aljeriarrak politikoki akabatzeko ahalegina egin da, hiritar izaera kentzeko, bere etorkizunari buruz erabakiak hartzeko duten gaitasunaz gabetzeko. Are gehiago, halako “hautesle garbiketa” moduko bat ere burutu da herri osoak akabatuz (Aljerretik hurbil kasu batzuetan), ikusia baitzuten herri horietan islamisten aldekoak gehiengo ia-ia erabatekoa zirela: Sidi Rais-en 300 hildako 1997ko abuztuaren 29an, Bentelhan 200 1997ko irailaren 22an, Relizane-n 400 1997ko abenduaren 31n, Sidi Hammed-en 400 1998ko urtarrilaren 11n... Bertsio ofizialak, sekula egiaztatu ez denak, zioenez, GIAk (FISen adar armatuak) zigortu egin nahi zituen bere alde egoteari utzi zioten herriak. “Sarraski horien egileak integrista islamistak edo segurtasun indarrei loturiko talde paramilitarrak izan ziren kontua alde batera utzita, kontua da –esan zuen Salima Ghezalik- gobernuak propio abandonatu zituela bere politikaren aurkako jarrera oso-oso sendoa zen herriak, ez dago inolako zalantzarik honetan”.

Eta hau guztia gertatzen zen bitartean, botere aljeriarrak lankidetzarako akordio asko itxi zituen, besteak beste Frantzia, Italia, Espainia eta AEBekin. Horregatik, gaur egun aljeriarrek halako harridura eta sumindura nahasketa bat sentitzen dute mendebaldeko herrialdeen pragmatismo diplomatikoaren aurrean ezen, Aljerian dituzten inbertsioek kalterik ez izatearen trukean, onartu egin dute Aljeriako

gobernuak azken 12 urte honetan zehar giza eskubideak modu sistematikoan urratzea. Eta Aljerian gertatu den hau mundu arabiarreko beste zona askotan ere aplika daiteke. "Nola eragotzi orduan –horrexen galdea egin zion Salima Ghezalik bere buruari- gazte aljeriar edo jordaniar bat kantuan eta dantzan hastea, lehergailu batek Iraken soldadu estatubatuar bat hil duela ikusten duenean? Nola eragotzi, orduan, gazte horrek pentsatzea bere heriotzak zerbaitetarako balioko badu berekin batera mendebaldar batzuk eraman behar dituela? Askorik ezin izango da egin terrorismo islamistaren aurka, sumindura edo haserre politiko hori ulertzeko (eta saihesteko) ahaleginik egiten ez den bitartean, Korana ikertzen, lupa eskuan, nahi dugun denbora eman arren".

Salima Ghezalik uste du orain askoz hurbilago gaudela "zibilizazioen arteko benetako talkatik", duela zazpi urte Samuel Huntington-ek bere eragin handiko saiakera argitaratu zuenean baino; honetan, Huntingtonek ziurtatzen zuen gerra hotzaren osteko munduan gatazka iturri nagusiak ez zuela sustrai ideologiko edo ekonomikorik, sustrai kultural eta ekonomikoak baizik. Herrialde arabiarretan etengabe bizi dira egoera politiko eta ekonomiko jasanezinak, eta bertako hiritarrek badakite edozein unetan sufritu dezaketela eta milaka eta milaka hil daitezkeela, Aljerian 1997 eta 1998 bitartean gertatu moduan, orduan herriak oso-osorik suntsitu baitzituzten; eta sekula ez da aukerarik izan sarraski horien benetako egileei buruzko ikerkuntza zorrotzik egiteko. "New Yorken irailaren 11n eta Madrilan martxoaren 11n izandako atentatuen ostean –esan zuen Salima Ghezalik- mendebaldeko herritarrak hasi dira horrelakoak berei ere gerta dakizkiekeela ikusten".



Idazle aljeriarraren iritziz, gaur egun Aljeria askoz urrunago dago benetako prozesu demokratiko bat abiatzeko aukeratik 1992an mugimendu islamista bere goreneko puntuan zegoenean baino. *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* mintegiaren barnean, goizeko saioan, Salima Ghezalik aztertu egin zuen Abdelaziz Bouteflikaren agintaldian zehar (1999az geroztik gaur arte) Aljeriak izandako bilakaera politiko eta soziala. Bouteflikak, Nazio Askapeneko Frontearen (FLN) eta Liamin Zérroual-en (Aljeriako presidente 1993 eta 1998 bitartean) inguruak 1997an sortutako Bilgune Nazional Demokratikoaren (RND) laguntza zuela, botoetatik %73,8 eskuratu zuen 1999ko apirilaren 15eko hauteskundeetan. Beste hautagai guztiak erretiratu egin ziren hauteskundeak egin baino lehen, uste baitzuten hauteskunde haiek ez zituztela legezko gutxieneko bermeak eskaintzen eta Bouteflika, independente gisa agertu nahi bazuen ere, 1992ko kolpetik ateratako erregimen militarren hautagaia zela. Alabaina, Bouteflika Aljeriako presidentziara iristea ongi ikusi zuten nazioarteko medioek, pertsona liberal eta demokratikotzat izateaz gain konkordia nazionala lortzeko, militar ustelak jazartzeko eta terrorismoari amaiera emateko gai ikusten zutelako.

"Bouteflika –esan zuen Salima Ghezalik- nazioarteko komunitateak Aljeriarako zuen apustu politikoa zen, eta hari laguntzeko irudi kanpaina bat diseinatu zen, herrialdeak bakerako bidean izan zezakeen aitzindaria eta aljeriarrei ilusioa itzul ziezaiekeen bake gizona balitz bezala aurkeztuz". Kanpaina honen bidez, mendebaldeko iritzi publikoak pentsatu izan zuen Bouteflika aurre egiten ari zitzaiola Aljeriako kupula militarri, berau talde islamisten aurkako etengabeko borrokaren aldekoa zela. Baina, Salima Ghezalik dioenez, haren konkordia nazionalerako proiektua sekula ez zen argitu, eta bost urte igaro eta gero, izan den eragin ikusgarri bakarra zapalkuntzan partaidetza zuzena izandako militar eta segurtasun zerbitzuetako kide asko kartzelatik ateratzea izan da, kargurik gabe geratu den buruzagi terrorista batzuekin batera. "Egia da –argitu zuen Salima Ghezalik- orain ez dagoela 1997 eta 1998ko haien pareko sarraski odoltsu ikaragarriarik, baina hilketa selektiboz, mendekuz eta abarrez hornitutako mafia dinamika batean sartu gara (hauetako biktimak, berriz, damututako terroristak, milizia paramilitarretako lehengo kideak...)".

Gaur egun, Aljerian gizarte, politika eta ekonomi mailako ustelkeria zeharo hedatuta dago, mafia lokalak daude (kasu askotan segurtasun indarrei loturik), eta hauek nahi duten bezala dihardute, inolako zigorrik jasotzeko beldurrik gabe; bitartean, herritarrak abandonaturik eta babesgabe sentitzen dira. 2001eko apirilaren erdialdean, komisaria batean gazte berbere bat hil zutelarik, berpiztu egin zen Kabilia gatazka, beste behin hildako ugari eraginez biztanleria zibilaren artean. Kabilia ezegonkortzean, herrialde iparrafrikarra lurralde-tentsioko egoera batean sartu da, eta dagoeneko autore batzuk "Aljeriaren txetxeniartzea" aipatzen dute; matxinadak eta gatazka erregionalak lurralde osoan zehar ugaritzen ari dira. Testuinguru honetan, Bouteflikaren gobernuak jarraitzen du bere boterea nazioarteko buruzagi askoren (Bush, Mohamed VI.a, Kofi Annan, Jacques Chirac...) laguntzaren bidez legitimatzeko ahaleginean, baina gizartearekiko haustura, Salima Ghezaliren iritziak, gero eta sakonagoa da.

ARGIBIDE GEHIAGO: <http://www.unia.es/artpen/mundo/mundo01/frame02.html>